

# Nafarkaria

• ostirala • 1999ko apirilaren 9a

**Egunkaria**

Gehigarri honetan

**Iruñerria.** Ezetz asmatu lehiaketa hilaren 20an hasiko da.

**Patxi Olartzabal** • «Zugarramurdik eskatu duen lurra Baztangoa da».

## Lursailen



## kontzentrazioaren kontuak

• MIKEL SAIZ

Nafarroan lursailak banatzeko prozesuak kalteak edo onurak sortu ditu, zein tokitan egin den. Mendigorria, Tafalla, Artaxona, Zirauki eta Oteitza Nafarroako erdialdeko bost herri dira, bost adibide kontzentrazio partzelarioak edo lursail kontzentrazioak eragin dituen eta eraginen dituen arazoak ulertzeko.

Iruñerria •

# Ezetz Asmatu lehiaketa

Karrikiri elkarteak berriro antolatu du euskara ikasten ari direnen arteko lehiaketa

**Karrikiri Euskara Elkarteak eta Euskalerrria Irratiak, Udalaren dirulaguntzarekin, Ezetz Asmatu lehiaketa kulturalaren bigarren ekitaldia antolatu dute. Iaz ere egin zuten, eta hura izan zen Iruñerrian euskaltegi guztiak bildu zituen gisa honetako lehen ekitaldi kulturala.**



Hainbat euskaltegitako ikasleak nor baino nor aritzen dira lehiaketan.

● ARTXIBOKOA

Lehiaketa prestatzen lan handia izan dute bai antolatzaileek bai euskaltegitako arduradunek. Batetik, antolatzaileak galderak prestatzen, epaileak lortzen eta jokaldien ordutegiak antolatzaren aritu dira. Bestetik, berriz, euskaltegiek hainbat gai jorratu dituzte. Lehiaketan iazko gaiak mantentzeaz gain, atal berri bat zabaldu dute antolatzaileek. Hortaz, geografia; historia, kultura, Iruñea eta gaur egungo gaiak lantzeaz gain, finalerako gai zehatz baten inguruko galderak prestatu dituzte: Arturo Kanpioni buruzkoak hain zuzen, zein Nafarroan euskararen suspertzaile eta ikertzaile izan zen.

Lehiaketaren arauak oso errazak dira, parte hartzaileak lau taldeetan banatuko dira, eta minutu bat izanen dute galderari erantzuteko. Galdera dagokion taldeak asmatu ez eta errebotetik badator, minutu erdi edukiko du, eta bigarren errebotetik badator, hamabost segundo bakarrik. Beraz, ikasleek belarriak erne izan beharko dituzte. Jokaldia amaitu ondoren, berriz, lehiaketan parte hartu duten ikasleek eta irakasleek elkar ongi ezagutzeko denbora izanen dute, orotua egiten duten bitartean. Finala non jokatuko den oraindik zehaztu ez bada ere, orotua eta dantzantaldia izanen direla ziurra da.

→ Idoia Martinez-Barranco

1 521. urtean Noaingo bataila izan zen Nafarroako Armadaren eta Errege-Erregina Katolikoaren Armadaren artean. Urte hartan, Iruñean, Gaztelako Armadan euskaldun ospetsu bat zauriturik gelditu zen bertan. Nor zen euskaldun ospetsu hura? Erantzuna badakizu? Gisa horretako galderei erantzun beharko diete Ezetz Asmatu Karrikiri Elkarteak antolatutako lehiaketan parte hartzen dutenak. Karrikiri Iruñeko Euskara Elkarteak eta Euskalerrria Irratiak, Udalaren dirulaguntzarekin, Ezetz Asmatu lehiaketaren bigarren ekitaldia antolatu dute. Apirilaren 20an hasi eta maiatzaren

14an amaituko da lehiaketa. Iruñerriko euskaltegi guztiak parte har dezakete.

Iazko arrakasta ikusirik, aurten ere Ezetz Asmatu lehiaketa egitea pentsatu dute antolatzaileek, lehiaketa baten inguruan Iruñerriko euskaltegi guztiak bildu ziren lehen aldia izan baitzen. Antolatzaileen aburuz, oso zaila da euskaltegien artean elkarrekin ezer egitea. Esperientzia xumea izan zen arren, oso harrera ona izan zuten. Hori dela eta, antola-

tzaileak oso kontent geratu ziren, jende askok parte hartu zuelako. Aurtengo lehiaketan 54 taldek parte hartuko dute, eta talde bakoitzean 6. urratsetik aurrera dauden lau ikasle ariko dira, iaz baino bat gehiago, hain zuzen.


Lehiaketan bost euskaltegi sarek parte hartuko dute: IBik, AEK-k, IKAk, Miluzekok eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzakoek, eta baita Hizkuntza Eskolako ikasleek ere.

## Bi helburu

Karrikiri arduradunentzako, lehiaketak bi helburu nagusi ditu: batetik, euskalduntzen ari den jendearen artean euskal kulturarekiko interesa eta ezagutza modu ludiko batez sustatzea; eta bestetik, parte hartzen dutenen artean harremanak bultzatzea eta euskaraz aritzeko aukera eskaintzea. Antolatzaileek garrantzi gehiago ematen diote helburuak giro onean betetzeari taldeen arteko lehiakortasunari baino.

## bi hormetara

JOSETXO AZKONA



**B**i hilabeteren buruan Nafarroan egiten diren diputazio eta udaletarako hauteskundeek berritasunik ekarriko omen diote gure herrialdeko mapa politikoari. Izan ere, Lizarra-Garaziko hitzarmenak eta ETaren su-etenak zenbait mugimendu eragin dituzte jadanik -hobe berandu sekula ez baino- talde abertzaleen artean: eta horrek, noski, aldaketak sortu behar lituzke, itxuraz behintzat, udalen eta diputazioaren osaketan.

Hola gauzak, badago esaterik kolore diferenteetako boto abertzaleak -EHen eta EA-PNV koalizioan bilduko direnak- zenbatzeko moduan izanen ditugula hauteskontzietan; argi eta garbi erakutsiko dituztela bestalde, nolakoa den nafar herriaren lotura politi-

## Ekainari begira

koa Euskal Herriarekiko. Horratio, egitasmo politiko horren alde zehazki zenbat gauden jakiteak izanen du bere garrantzia geroari begira; besteak beste, proiektu hori benetan aurrera eramateko behar den giza mugimendurik baden ala ez, ezin nabarmenago agertuko baita guztion begibistan.

Baina kalitateaz haratago (96ko hauteskundeetan %13 besterik ez zen boto abertzalearen alde lerrokatu), diskurtsoaren nolakotasunak kezkatu beharko gintuzke bereziki, zeren azalpen zuzen eta egoki horretan baitatza, neurri handi batean, proiektu horreko jendearen atxikimendua eskuratzea edo (orain arte gertatu den bezala) historikoki lortutako arbuioa gaintzea. Eta hemen, Nafarroan, ez dezagun

ahantz, arbuioak gehiago sortarazi ditu euskal abertzaleen alde -berdin dio ezker, zentro edo eskuinekoak- atxikimenduak baino. Ideiak tinko defendatzeak ez du zertan ekarri maiz zabu usaineko diskurtso bati estuki segitzea, estrategia propio eta eraberriturik ezean partidu abertzaleek Nafarroan eraman dutena, hain zuzen; urte askotan zehar.

Abertzaleen aldeko diskurtsoa Nafarroan -holakoa izan den ala ez den une batez alde batera utzita- monolitiko, mitozale eta atzerakoitzat joa izan da etsai eta kontrarioen aldetik, gaurko gizartearen beharizanak betetzeko balio ez duela leporatu diotelarik. Bada garaia ideiei zein praxiari garbitu on bat emateko, beraz.

# Elizondo • Udaberri Feria

Elizondon azoka interesgarria antolatu dute baztandarrek gaurko

**Udaberriko feria berreskuratzeko ahaleginean, 1996an hasitako bidetik, azoka interesgarria antolatu dute Elizondon gaurko. Aziendak, zikiroa, bertako produktuak eta musika izanen dira besta eguneko ardatz.**



Udaberriko Ferian hainbat produktu egonen dira salgai.

• ARTXIBOKOA

**B**ETIDANIK IZAN DITU BI FERIA nagusi Elizondok, udazkenekoa eta udaberrikoa. Azken urteetan aldaketak izan baditu ere, ongi errotutako feriak dira udazkenekoak. Udaberrikoak, aldiz, desagertuta zeuden. 1996an Elizondoko Udalak, Cederna-Garalurren ekimenez, Udaberriko feria berreskuratzera erabaki zuen. Bi egun izan beharrean, bakarra izatera iragan da feria, eta apirilko bigarren ortziralez ospatzen da.

Goizeko 9:00etan hasiko da feria, merkatu plazan egiten den azienda feriarekin. Elizondon aretxeek eta behiek izaten dute protagonismoa, eta gutiago izaten dira zaldi, ardi eta zerriak. 10:00etatik aitzinera zikiro erretzea egi-

nen da merkatu plazan bertan, jendeak ikusgai izan dezan nola erretzen den. Horrekin batera, baztan-zopen dasatzea izanen da.

11:00etan Javier Larralde eta Juan Miguel Iriarte txistulariak karriz karriz ibiliko dira. Tenore berean, bertako produktuen feria zabalduko da plazan. Gaztagileen artean Elbeteko Autxitxia, Elizondoko Etxetxipia, Arizkongo Baztan, Amaiurko Mendialde eta Lekunberriko Bikain izanen dira Elizondoko plazan. Fruta eta edari saltzaileak ere bertan izanen dira: Erratzuko Carlos Gansoain, Iruritako Mari Jose Brust, Arizkongo

Baztan Likoreak, eta Lekarozko Larralde Sagardotegia. Piru eta kontserbetan, Almandozko Beola eta Vianako El Bordonek aurkeztuko dituzte euren elikagaiak. Horietaz guztietaz gain, bertan izanen dira Julio eta Anaren pomadak; Berako Nafarroa artisautza eta elikagaien erakusketa, Zubietako Joxepa Loiarte talogilea eta Naparbideak; azken hau Nafarroako Nekaritzatik elikagaien Produktoreen Elkarte da. Horiakin guztiekin batera, Fernando Agerre eta Jose Mendiguren egurgileak eta Pedro Zapata arotzak euren artisau lanak erakusgai paratuko dituzte.

## Ahari lehiaketa

Erakusketa horiez gain, Baztango Latxa arrazako ahari lehiaketa ere abian paratu da. Artzain bakoitzak nahi adina ahari aurkeztu ahal izanen du, eta bi sari partituko dira, bat mutur gorrietan, eta bertzea mutur beltzendako.

Bazkal orduan atsedean hartuko dute artisau, nekazari eta saltzaileak, eta berriz ere 17:00etan ekinen diote lanari. 20:00ak bitarte produktuak izanen dira berriz ere plazan. 20:00etan txistulariek Gorramendi 10 taldeari leku utziko diote, dantzaldia hasiko baita.

→ Jon Abril

## herri aldizkariak

Edurne Elizondo

## Daniel Landarten azken lana

**Herria** astekariak Daniel Landart euskal idazleari elkarrizketa egin dio azken zenbakian, plazaratu berri duen *Anaiaren azken hitzak* liburua dela-eta. «Daniel Landart euskal idazlea hor dugu luma xorroxturik liburu berri batekin: *Anaiaren azken hitzak*. Lehenago euskaltzaleek konprenitzen zituzten elizako euskara, 'hobeki errana', misionetakoa, eta beren familiakoa. Danielek ezkontza berria eskaintzen digu liburu honetan ere euskara batua erabiliz, bereziki aditzetan eta gure etxeko euskara hura hiztegi, hitz joko eta metafora herrikoietan».

Ondokoak dira Landartek bere lan berriari buruz **Herriari** errandakoak: «Hemen, Ipar Euskal Herrian kokatzen da: 26 urteko mutiko normal, arrunt baten ixtorioa kondatzen du, bederen berak sei hilabetez pasatzen dituen memento latzak. Denboraldi horretan biziaren errepasa egiten du eta hautu batzu ere baditu egiteko. Haste-penean Paxkal bere anaiaz mintzatzen da bereziki liburuan, Abel bere anaia ixtripuz hil baitzitzaion, eta ordu arte bere anaia-aren itzalean bizi izan baita eta miresten baitzuen anaia hori. Erran nezake kasik hartan identifikatzen zela...».

«Maitasuna ere bada, maitasun ixtorio baten hastapena edo maitasuna baino gehiago kezka handi batzuen hastapena; hauek ekartzen dituzten traba guziak, buruhausteak, griñak eta ezinbestekak. Duela zenbait urte izkiriatu nuen *Batita Handia*, frango gai minberak aipatuz. Aldi honetan ere gauza minbera bat da, ez arras berdina, baina atseginekin izkiriatu dudana; eta nik uste dut plazer handia nukeela horren ondotik beste pare baten idaztea, zeren eta gero eta gehiago senditzen baitut idazteko errabia bat bezala».



urdai  
aren  
mintzoa

Xabier Larraburu

## Blade Runner eta Intraturistak

Oporraldian gauza arraroak egiten dituzte. Aste Santuan Takoneran pasiatzen ikusi ditzakegu edo Gaztelu plazan kafea hartzen eta egunkaria irakurtzen. Gizaki misteriotu hauek ez dira inongo lurralde urrunetik etorri, bertakoak dira, ez dute inongo bidaiarik egin, guk Intraturistak deitzen ditugu, eta haiek akabatzeko espreski entrenatuta gaude. Bai, asmatu duzue, ni Blade Runner horietako bat naiz, zer egingo diogu, ez nuen nik erabaki ez eta patuak ere, dirua izan zen kontua, ongi ordaintzen digute, ez dago besterik. Horrexegatik herenegun goizean, Bidai-etxearen deia jaso nuenean -Intraturista nazkagarri bat detektatu dugu Sarasate Pasealekuan-, gabardina eta arma hartu eta haruntza abiatu nintzen. Berehalaxe topatu nuen tipoa. Intraturista bat benetako turista kanpotarren artean bereiztea ez da gauza errexa. Bere faltsukeria estali nahian foru monumentuari begira zegoen. Ikusi nindueanean, korrika hasi, Principe zinemako atea ireki eta barruan desagertu zen. Bere atzetik beti, aretoan sartu eta nire zain zegoen Intraturistaren kolpe latza jaso nuen. Lurretik bi tiro bota nizkion. Berak pistolari ostikada bat eman eta pasiloan behera bidali zuen. Besoa puskatua nuen eta pantaila txuri eta erraldoi hura nire bizitzan ikusiko nuen azken gauza izango zela pentsatuz azken kolpea jasotzeko prest nengoen. Intraturistak, aldiz, nire ondoan eseri zen arnasestuka. Bi zulo gorri zituen bularrean eta ahots txikia atera zitzaion: «Leku miregarrietan ibilia naiz... sinestuko ez zenituen gauzak ikusi ahal izan ditut... polizien pelotazoak gaueko ordu txikietan, San Cernin-eko dorreak egunsenti elurtu batean, katu pilo bat alde zaharreko patioetan, X izpiak dir-dir General Solchagaren gela ilunean, ardi saldo txuria Zumalakarregi atea baino haruntzago...kof kof. Hilzorian zegoen. Gauza guzti hauek nirekin batera desagertuko dira, malkoak eurian bezala... Isildu, begiak itxi eta hil egin zen. Arma jaso eta Nigerian rafting egiteko publizitate orrialde bat bota nion hilotzari. Diruz krixton txoiloa zena, gainera».

# Lursailen kontzentrazioan inguruko tira-birak Nafarroan

Lursailak banatzeko prozesuak kalteak edo onurak eragin ditu, zein tokitan egin den

**Mendigorria, Tafalla, Artaxona, Zirauki eta Oteitza, bost adibide lursailen kontzentrazioak Nafarroako erdialdean sortu dituen eta sortuko dituen arazoak ulertzeko. Batzuek komunala edo herri lurra berreskuratzea nahi dute, besteek ez dute galdu nahi, hangoek nekazaritza bideekin liskarrak dituzte eta hemengoek zailtasunez kontzientziatzen dituzte herritarrik. Kontzentrazio partzelarioaren kontuak dira.**

Nafarroan azken hamarkadetan 300.000 hektarea kontzentratu dira eta egun 140.000 hektarea kontzentratzen ari dira. Herrialdean lursailen %43 komunala dira, 479.000 hektarea inguru. Herri lurren inguruko azken legeak honelaxe definitu du lur hori: «Bizilagun guzietz dagokien ondarea». Lursailen kontzentrazioa edo kontzentrazio partzelarioa herri luraren kontraketat jo dute, guzien ondarean kalteak eragiten omen dituelako.

Kalte horien adibide gisa Mendigorriako kasua jarri ohi da beti. Mendigorrian lursailak kontzentratzeko prozesua duela 16 urte hasi eta 1990ean bukatu zen. «Udalari lur pilo bat faltatu zitzaion», erran du Jose Antonio Arizala egungo alkateak. «Zenbait partikularrak erreklamatu eta Udalari komunaleko 150 erreku-lur kendu zitkieten hain emateko. Aurreko udal-batzarrak auzitara eraman zuen aldaketa hori, eta gu sartu ginenean Nekazaritzako Egituren Zerbitzura jo genuen kontua nola zegoen ikusteko». Udalaren eta Zerbitzuaeren arteko ikerketa batek ondorioztatu zuen kontzentrazioa egin eta gero Udalari laborantzarako 400 erreku-lur falta zitzaizkiola eta beste 400 landu ezin zitekeena. Arazoa larria zenez, herri kontsulta egitea otu zitzaion Udalekoel. «Leporazten ziguten partzelazioa legalizatu nahi genuela. Udalean sartu ginenean, ordea, nahi genuena zen kontzentrazio prozesua atzera botatzea, baina



Zirauki paisaia mahastietatik. ● MIKEL SAIZ

abokatu guzietz ezinezkoa zela erran ziguten prozesua 1990ean bukatu zelako. Legez prozesua atzera bota ezin genuenez ahal genuen guziaz ateratzea zen gure helburua».


Kontsultan baiezkota atera zen, eta 1998ko uztailen Mendigorriako Udalak eta Nafarroako Gobernuak hitzarmen bat sinatu zuten, zeinaren bidez Gobernuak Mendigorriari hau guzti eman zion: 50 milioi pezeta lursailak erosteko (bi milioi libera); 6,5 milioi peritu eta abokatuekin gastatu zutenagatik; 8,8 milioi lur horietatik hartu ez zutenaren sari gisa; gainera, galzki dauden bideak konpondu eta bide berriak eginen dira.

Lortu dutena «ontzat» jotzen du Arizalak, «txarrean onena delako». «Behintzat ikerketa bat egin zen eta ikusi genuen zenbat falta zitzaion. Aurreko Udalaren helegitearekin 30 milioi pezeta lor genitzaieela erran ziguten eta lortu duguna ikustea besterik ez dago aitzina egin dugula ondorioztatzeko».

## **Komunalaren Aldeko Plataforma Tafallan**

Mendigorrian gertaturikoa Tafallan gerta ez dadin hainbat ekologista, chiztari, mendizale, nekazari eta lur-jabek (950 lagun denetara) Komunalaren eta Ingurugiroaren Aldeko Plataforma eratu dute. Ez daude lursailen kontzentrazioaren aurka, baina gauzak ongi egitea nahi dute, Eugenio Bidaurre plataformako kideak azaldu duenez. «Aurkeztu zuten eskaera espedientearen zenbait iragaritasun ikusi genuen, hainbat hildakoren sinadurak erraterako, eta gelditzeko eskatu dugu. Beste herrietan egin diren gehiegikeriak eragotzi nahi ditugu, herri lurrik gabe ez geratzeko».

Udalak eskaera egin dezan hainbat modu daude, eta Tafallakoak aukeratu duenak ezbaian jartzen du eragileen zuzentasuna. Kontzentratu beharreko lurren %65en jabeen sinaduren bila abiatu dira, eta %67 lortu dute, barnean komunala sartuz. Komunala %52 da, eta Udala da horren jabea. «Ez da modurik zuzenena, baina legala da», erran du Udaleko Ne-



Zirauki errota zubia. ● MIKEL SAIZ

## **Jabeak kontzientziatzeko arazoak**

Artaxona herrian laborantzak lurren %25 inguru herri lur dira, eta %35 baino gehiago elkartu pribatu batena. Artaxonako Udaleko Nekazaritza arduradun Benito Lizoainek erran duenez, kontzentraziotik biak, komunalekoak eta elkarrekoak, kontent atera dira. «Dena oso barreiatu irizten dute orain jabe beraren lursailak elkarren ondoan dira. Gainera, komunalarai lapurturiko erreku-lurra bueltatu egin dizkiote».

## **Komunalaren sozalizazioa Oteitzan**

Oteitzan duela urte anitz egin zuten lursailen kontzentrazioa, 1978 inguruan. Udaleko idazkariak adierazi digunez, Oteitzan komunalaren onurako ezer gutxi ekarri zuten kontzentrazioak, baina eraginiko kalteei larritasuna kendu nahi izan die. «Herrilur pixka bat galdu genuen, baina hori normala da. Lehendik geneukanari eustea eskatu genien. Gehiena gorde genuen eta kalteatipia izan zen. Lurren sailkapenean, besteekin alderatuz, komunaleko lursailak gutiago baloratu ziren, herri guzietan gertatu ohi den bezala».

Oteitzako alkate Maria Jesus Otxoak komunalaren inguruan azpimarratu nahi duen bakarra zera da, iaz ekotzpeneko komunala banatzeko modua aldatu egin zutela. Herrian 3.800 erreku-lur komunal dute eta la-

Zera eskatu dute plataformakoek: «Heskaiek, ezpondak, sakanak eta zuhaitzak errespetatzea, paisaia kontserbatzea eta errosioa galarazten baitute; mahastiak, oli-bondoak eta almendroak errespetatu eta ez ukitzea, orain arte beste kontzentrazioetan egin dena. Prozesuan informazio, argitasun eta partaidetza handiagoa egotea, gure baliabideen kudeaketa onduaren, paisaiaren eta ingurugiroaren kontserbazioarekin batera etor dadin». Plataformakoak Nafarroako Parlamentuko Nekazaritza Batzordean egon ziren otsailaren hasieran beren aldarrikapenak azaltzeko. Han, ordea, ez omen zieten kasu handirik egin. «Kontzentrazioa egin den tokietan nekazari guzietz hagitzen kontent gelditzen direla erran ziguten», dio Bidaurrek. «Nik baitez ihardetsi nien, nekazari guzietz hagitzen zirela, baina zeren konturatu? Komunalaren konturatu». Gainera helegitea aurkeztu dute auzitegiaren eskaera espedientearen eta Nafarroako Gobernuaren kontura, kontzentrazio partzelarioa hasia premiumotzat jo delako.

boreak landatzeko erabiltzen da batez ere. «Bizilagunen arteko enkantea egin zen orain arte. Baina enkantea ez zen publikoa eta komunala herriko guti batzuen artean banatzen zuten. Iaztik aitzina komunala banatzen da, komunalen legeari jarraiki, diru-sarreraren baremoen arabera. Banatzeko modua aldatu da herritar guzietz komunala erabiltzeko aukera izan dezaten. Komunala sozIALIZATU egin da. Bi banaketa mota ezarri dira: lehen tasunezkoa, diru sarrera oso ttipiak dituzten jabilatuenak; eta jende aktiboarena, diru-sarrera eta familiarak kideen arabera egin dena. Eta horrela herri guzietz artean banatu da herrilurra». Otxoak dioenez, «banaketa hau, oraingoz, Nafarroan Oteitzan besterik ez da eginen».



Mendigorriako lursailen kontzentrazioa 1990ean amaitu zen. ● MIKEL SAIZ

Lizoaiek beharrezkoa ikusten du lursailen kontzentrazioa, «kontrolpean egin bada». «Hobe daiteke, baina balio du. Hala ere, praktikan arazoak sortu dira. Ingurugiro Departamentuak darabilten teoria ona dela uste dugu. Ezpondaren bat baduzu ezin duzu galdetu gabe desegin. Ondoren zer egin duzun ikustera etortzen badira eta gauzak ongi egin badituzu dirulaguntzak jaso ahal ditzaitez. Guardiek hagitzen modu zorrotzean egin dute kontrola». Arazoa, ordea, jabeen kontzentrazioan dago. Artaxonan badira 30 bat nekazari titulu printzupal bidez eta 900 bat jabe. «Horietako asko atzerako samarrak dira. Ez dute ulertzen zergatik euren lursailak ezin duten edozer gauza egin, edozein zuhaitz bota. Batek baino gehiago, gauzak baliatuta, bere lursailko arteak bota edota ezpondak desegin ditu. Ahal duten guzietan guardiek zirra sartzen saiatzen dira. Guardiak oharitzen badira, isuna jarriko die kalteak eragin dituztenei. Hala ere, ezagutzen ditut Artaxonan zenbait kasu zeineta guardiek eta foruzainek isuna jarri dioten jabeari eta hark bulegoetan lortu duen deus ez ordaintzea. Baina hori bestelako kontua da».

## **Ziraukin liskarrak bideekin**

Ziraukin orain ari dira lursailak kontzentratzen eginen. Komunalari dagokionez, pozik daude. «Komunalaren errentatik bikoitza kobratu dugu aurten. Gainera, herri lur anitz azaleratu da», adierazi du Ziraukiko alkate Jesus Maria Aramendiak. Kontzentrazioan izan dituzten liskarrak bideen ingurukoak izan dira. Herri Donejakue Bidea igoaroten da, eta, hori ondare artistiko eta kulturala denez, ezin da ukitu nekazaritza bideekin egiteko. «Ondarearen Kontserbaziokoak etorri eta erran zuten hau eta hura ezin zela ukitu Donejakue Bidea zegoelako», azaldu du Aramendiak. «Gauzak horrela, nekazaritzarako bidea errepidera atara zuten pare bat kilometro».

## **Komunalaren Aldeko Plataforma**

«Partzelazio prozesuan informazio, argitasun eta partaidetza handiagoa egotea eskatzen dugu, gure baliabideen kudeaketa onduaren, paisaiaren eta ingurugiroaren kontserbazioarekin batera etor dadin».

troz. Traktorekoek, noski, ez zuten errepideetik ibili nahi arras arrisksua delako. Azkenean herritarrek konpondu behar izan genuen egin zigutena. Ziraukikoek beste bi biderekin ere liskarrak izan dituzte. «Eta, gainera, hara non Lizarraldeko Partzuegokoak etortzen zaizkigun bizikleta bidea egiteko aitzinproiektu batekin. Dagoena konpontzen ez den bitartean bizikleta bide horren kontra gara, halaxe erabaki zen osoko bilkuran».

Donejakue Bidea atontzeko Nafarroako Gobernuak langileek egin zituzten kalteek Ziraukikoan haserrea areagotu dute. «Ubide baten gainean bide bat egin zuten eta, noski, euria egin zuenean urak bidea eraman zuten. Aurreko bi urteetan gertatu da. Hori ikusirik, Donejakue urterako berriro estali egin dute, baina oso gaizki. Eta euri-jasa izaten den lehen egunean haraino joanen gara urak bidea berriro nola eramaten duen ikustera».

«Lanean ari zirela», gaineratu du Aramendiak, «Erdi Aroko zubiraino heldu eta hura erori egin zen. Erortzeaz zegoela abisatu genuen, baina, kasualdidea, erori egin zitzaion. Erran beharra dago, hala ere, zuba hamar egunetan konpondu zutela eta orain oso ongi dagoela».

Aramendiak dio jendea, oro har, kontzentrazioaren alde dagoela, baina badituela alde onak eta txarrak. Ziraukin, ezbaierik gabe, bideen afera da herritarrek haserretu dituen kontzentrazioaren inguruko kontu bakarra. «Izan ere, ez da batere erraza herritar bategana jotzea eta erratea bere lursailko 400 metro kendu behar dizkiozula bidea egiteko».

Lursailen kontzentrazio prozesuek irizti ezberdinak sortzen dituzte, kalteak edo onurak eragin baidituzte, non egin diren. Lursail etekin handiena ateratzeko, kontzentrazioa egin behar dela da gehien ustea, baina betiere, ondare eta ingurugiroa errespetatuz eta, ahal dela, komunala mantenduz.



Tafallako lurretan ere lur kontzentrazioa eginen ari dira. ● MIKEL SAIZ

## Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

### Klasikoen argitaratzaile bi

Elkarrengandik gertuegi egon ez baziren ere, euskal egile zaharren lanak ahanzturatik atera zituen Dodgson eta betiko moldiztegi bati berebiziko segida eman zion López jaunek eduki bazeukaten zèr amankomunean



**D**ODGSON Aspaldian garbituriko hautua baden arren, oraino ere betiko leloari eusten diotena badira, gezurraren erakargarriak itsututa bezain lurratuta. Hortaz, eta garbi gerra dadila behingoz ere, Edward Spencer Dodgson euskalaria ez zen Lewis Carroll ezizenaren azpian ezkututzen Charles Lutwidge Dodgson elizgizon, matematikari eta idazle famatuaren anaia. Hipotesi hau Migel Angel Elko roberezibar ahalegindu zen frogatzen, baita lortu ere, 1987an jada argitara eman zuen Palamedes: Edward Spencer Dodgsonen identitateari buruz zenbait ohar kritiko izenburuko saioan.

Edward Spencer Dodgson Essex konterriko Woodforden jaio zen 1857ko azaroaren 19an. Aita burtsa artekaria zuen, ama berriz, Smith ezkongabearen Winchester Schoolen hezikirik, 1876an Oxfordeko New Collegen sartu zen, haatik, ikasketak bukatu barrik, eskapi egin zuen hiri bereko Jesus Collegen sartzeko. Bigarren honetan keltiar hizkuntzak ikertzen ziren, tartean ere, eta keltiarra zelakoan, geurea; Dodgsonen asmoak euskararen inguruan zegoen usteoker honen artatzeraz zeuden zuzendurik. Euskal ikerketarako bi ziren Dodgsonen ezizenak, *Heuskaralogus Anglicanus* eta *Palamedes*, eta burututakoaren artean aipagarri bada, Leizarragaren *Testamentu Berriaren* adizkien komuntaduraren ikerketa dugu, bere lanik hoberena ausaz, Oxfordeko Unibertsitatean Master of Arts titulua eskuratzeko erabakigarri gertatu zitzaiona. Gurean berriz, ez zuen aipamen berezirik jaso; garaiko euskalari gehienekin posta harremanak izan bazituen ere, zuen eite bereziaren gatik, inor gutxiren gustukoa izan zen.

Euskal idazle zaharren lan ugari berrargitaratzeaz gaine-

ra-Mikoleta, Kapanaga, Otxoa-Arin, Mendiburu, Kardaberaz, Frai Bartolome, Leizarraga, Urte, Tartas... euskara ere literatur lanak ekoizteko lain ikasi zuen; John

Byronen lana itzuli zigun, *Eguberriko kantiko bat*, Oxforden 1907an agerturik, eta hainbat olerkiren egile izan genuen, Berlingo *Euskara* aldizkarian zein Urkixoren *RIEV*-en atera zirenak; 1901eko da Elcheko Andrari eskainitakoa, zalantzarik gabe, bere lerratze iberiarzalearen adierazgarri: «Heuskara! Oi buru maitea / Nehork ohortzi baitzaitu lurpean / Zu begiratzeko anhitza ederra / Goratu zaite Parisen artean / Heuskara! Ai hizkuntza maitea! / Askok lurperat nahi zinduketen / Alabaina gero zare / Bihotz garaille betiko izanen!».

LÓPEZ

Eusebio López Lodosan jaio zen 1846an eta Tolosan hil zen 1929an; Ixaka López Mendizabalen aita, euskal liburuaren argitaragintzari sekulako bultzada eman zion. Zegamako Frantzisko de la Lama inprimatzailea 1828an hil ostean, bere alaba Goiazko Juan Ignazio Mendizabalekin ezkondu zen, Tolosako moldetegiaren izena aldatu zela; Mendizabal 1839an zendu zen, eta historia errepikatuz, haren alaba karlistaldiak Tolosara eramane zuten Eusebio Lópezekin ezkondu zen, berriz ere, inprimatzaile-izena aldatuz.

Eusebio Lópezek esker argitara ateratako lanen zerrenda ez zen makala izan, bai estreinakoz ateratako lanak bai lan zaharren edizio berriak zirela. Zerrenda laburra ematearren, bihoaz honakoak. *Aranaren Jesusen biotz sagraduko bilera* santa 1878an, edota *Loiolako*



oroitza txiki bat *Jesusen lagunarteko lanaren* 2 edizioa 1883an. Arrueren *San Inazioaren bizitza* 1881ean, *Sarritaco komunioaren gañean* 1883an eta *Brabante-*

*ko Genobebaren bizitza* 1885ean. Juan Kruz Etxeberriaren *Jesusen imitazioa*-ren bigarren edizioa 1881ean. Kardaberaz *Ama beneragari Josefa* 1882an, *Esku liburuaren edizio laburtua* 1883an, baita *Senar emazte santuak ezagunaren* 2. edizioa 1885ean. Antiarren *Karmeltar debotaren ikasbidea* 1883an. Mogelen *Konfesio ta Komunikoko sakramentuen gañean* lanaren 2. edizioa 1885ean, edota *Mayatza illerako berba aldijak* 1885ean. Madozko erretorea zen Juan Migel Gurutzegaren *Kalbario santuak* 1886an. Lardizabalen *Testamentu zarreko eta berriko kondaira*, bigarrenez, 1887an.

Lan hauek guztiak eliz lanak baziren ere, eliz lanak ez zirenak ere inprimatu zituen Lópezek. Esaterako *Astigarra-garen Diccionario manual bascongado castellano y elementos de gramática para el uso de la juventud de Guipúzcoa* IDAZKIAREN 10. EDIZIOA 1883AN, BAITA BIZKAIERARA EGINIKO LEHENBIZIKO ALDAERA 1884AN; ITURRIAGAREN IPUINEN BIGARREN EDIZIOA 1884AN; CAMPIONEN GRAMATIKA EZAGUNA 1884AN; AIZKIBELLEN HIZTEGIA 1885EAN; GOITIAREN EUSKERAZKO AGRICULTURA NEKAZARI EUSKALDUNENTZAT 1886AN; Soroaren Urrutiko intxaurrak antzezlaria 1887an; *Novia de Salcedoren hiztegia* 1887an; Kozinan ikasteko liburua txit bearra famili guzietan lendabizikoa euskaraz sukalde-liburu ezezagun bezain interesgarria 1889an; edota *Iztuetaren dantza liburuaren bigarren edizioa* 1895ean.

## etorri ahalean

Patziku Perurena



### Godoak Goizuetan

**G**OIZUETAKO ELIZAKO artxiboan, jaiotzako agirien aurreneko liburuan 1678ko pasarte honekintxe egin du topo nere begi erruka-beak: «*Gracian de Sanchotena y Magdalena de Santamaria su muger, ambos de los godos*» haur bat bataiatu dute. Atautxi amautxiak: Zarandiarrak. Hurrengo haurraren jaiotzako agirian ere hala berean: «*ambos de los godos*» dio gurasoetaz; atautxi amautxiak: Aranguibel eta Ercazi deitura-koak. Gero, 1690 urteko jaiotzan ez da godo konturik aipatzen; baina atautxi amautxiak: «*Pedro de Arizkun y Margarita de Urkizu*».

Aski ezaguna da Arizkungo seme Xabier Santxotena, eskultore eta sukaldari sonatua. Honela zioen 1996ko garagarriaren 5ean, Nafarroako Museoan zabaldu berritako erakusketan: «*Este museo servirá para conocer qué es un agote, para quitar el complejo a la gente, un sentimiento que ha llegado hasta nuestra generación. Antes era una cosa despectiva, cuando eran los grandes fenómenos de la tierra y buenos artesanos*». Bistakoa da, beraz, agote kastakoei godo ere deitu izan zaiela gure izkribu zaharretan.

Goizuetan bertan, 1693ko otsailaren 8an hartutako erabaki batek, honela dio Herriko Etxean: «*los Sres. Jacobe de Zarándia, Martín de Hubizi mator, Juan Miguel Hubizi y Fermín de Huarte alcalde y jurados de ella (...) propusieron, como de pocos años a esta parte se an introducido en la dicha villa algunas personas que por nombre llaman agotes y los susodichos sin reparo alguno se ban assentado en los escaños de la iglesia parroquial de la dicha villa donde se assentan los dichos vecinos, y por ebitar que todos esten comunmente, todos conformes, en que el mayordomo de la dicha iglesia parrochial, aga hacer un escaño para los susodichos y que ponga en*

él aparte, para que los tales se an conozidos y ningun vecino de la dicha villa casse y fuere nonbrado por compadre de los susodichos; y que tales no se osten de bautizar ninguna creatura despues de las misas maiores, sino por la mañana o al oscurecer, pena de que haciendo lo contrario sean castigados».

Horra Inkisizioak utzitako arrastoak nonahi. Kontuz ibili beharra dago, batipat Frintzi eta Baztan aldetik datorren jendearekin. Han baititu zainak, kataroen garaitik datorren hereji kontu ilunak.

Urtero Erromara bidali behar izaten zuten *Annuae Litterae* batean, jesuita batek hala dio 1612-14 inguruan, Ipar Euskal Herri eta Biarno aldeko erlijio giroaz: «*Los Cascigodos son entre los Bearneses un resto de los antiguos godos, separados por tierra, hábitos y absolutamente todo trato, del grueso de los indigenas, a quienes parece un delito contraer matrimonio con aquella gente. Los bearneses en otro tiempo sufrieron una durísima esclavitud bajo el poder de aquellos y, por el recuerdo de aquella amarga dominación gótica...*». Patxi Altunak latinetik espainoldua duzu dokumentua.

Atzera nere sorterri bihotz-kora etorritz, hara zein ezkondu ziren 1684ko garagarriaren 16an, elizako atetan: «*Inigo de Ezponda, de los godos, natural del lugar de Arizkun y feligres de Maya en Baztan, y Cathalina de Echeberria hija de Baygorri al presente habitantes en esta villa de Goizueta. Asistieron a la solemnidad deste Santo Sacramento Fco. de Iriburrun-macero de herrerías, Fermín de Lasarte y Baptista de Andrate-gui estudiantes*».

Eta bapatean, Ezpondaren kontu gaizto hura ekarri dit gogora, ezkontza gotiko horrek. Jakin nahi baduzu, ikus «*Goizueta eta Aranoko Hizkerak*» liburuko 175 orrian «*Ezpondan Minak*» izeneko leienda. Ez baita munduan, zinezko erro gabeko leiendarik.

## Ziria

• Motxorrosolo •

### Liberal totalitarioak


**G**EHIENGORIK GABE DEMOKRAZIARIK EZ. LIBERALISMOZ MOZORROTURIKO totalitarismoa amets dutenen aztoramena ez da makala. Indar mediatikoa alde dutelarik, aise mantenduko dituzte oraingo pleguak. Egun, hor dira, ekialdean, indarraren erresumarenak zurrizten. Ez da ikasbide txarra, atarian baitira.

# Patxi Oiartzabal

Baztango alkatea

## «Baztanek ez du onartuko lur zatirik kentzea»

**Baztango Balleko Udala aztoratuta dabil, duela hilabete batzuk Zugarramurdiko Udalak Baztangoak diren herri lur batzuen bereganatzea eskatu ziolako Nafarroako Gobernuari. Patxi Oiartzabal Baztango alkatearen ustez, afera argia da: Baztango herri lurra esku pribatuetara pasatzeko martingala. Alkateak dioenez, hainbat baserri herri lur hori ustiatu dute, eta haietan egindako aprobetxamenduaren ondotik berenganatu egin nahi izan dituzte.**



● MIKEL SAIZ

soslaia

**L**ANEZ GAINEZKA BADABIL ERE, Balleko Etxeko batzar aretoan hartu gintuen, Elizondon. Ziga margolariak margotutako Guillermo Balda medikuaren erretratua lekuko genuela, irmoki defendatu zuen Balleko herri lurra.

■ **Balleko Batzarra astelehenean bildu eta Zugarramurdik Baztango lur zati bat bere egiteko Nafarroako Gobernuari egin eskaeraren aurka bozkatu zenuten. Nola dago afera?**

Duela lau-bost hilabete Nafarroako Gobernuaren bidez jakin genuen Zugarramurdiko Udalak Baztangoak diren lurak bereganatu nahi zituela. Mugakide gara eta ustez harreman onak ditugu. Eskaera egin zenetik hilabeteak pasatuak ziren, eta haren aurreneko berri Gobernuak eman zigun, ez Zugarramurdiko Udalak. Hori ez zaigu ongi irudit.

Zugarramurdiren eskaerari egindako alegazioak aurkeztu dizkiogu Nafarroako Gobernuari.

■ **Zertan oinarritzen dira alegazio horiek?**

Alegazioetan esaten da lur hori Baztangoa dela eta Baztangoa izaten jarraituko duela arrazoi jakin batzuegatik. Berretzeak bi arrazoiengatik gertatzen dira, Tokian Tokiko Administrazio Legearen arabera. Lehenik eta behin, bi udal horien erdigunea edo hirigunea nahasten denean hirigintzaren garapena dela medio; eta, bigarrenik, behar ekonomiko handiak gertatuko balira.

Uste dugu bi arrazoiok ez direla gertatu eta lur hori Baztangoa dela, beti horrela izan dela eta inork ez duela eskubiderik guri gurea den lur zati bat kentzeko.

■ **Zer gertatzen da Zugarramurdiko erroldan dauden Baztango 58 baserrietako bizi-lagunekin?**

Baserri horiek Baztango erroldan daude, eta 58 horietatik hemezortzi daude beteak eta batzuk asteburuetan soilik. Baserri horiek beti gozatu dute Baztango herri lurraz. Oinarriko arazoa da baserri horietako bizi-lagunek Baztango herri lurak berenak balira bezala erregistratu dituztela. Orduan Nafarroako Gobernuak eginduen herri lurren txostenaren

erregistroan, beti Baztango herri lurak izan direlako. Badira baserri batzuk herri lur hori ustiatu dutenak eta ondotik berentzat hartu nahi izan dituztenak. Nafarroako Gobernuaren herri lurren txostena bukatzen denean, esanen zaie Baztango herri lurak erregistratu dituztela berenak balira bezala»

«Badira baserri batzuk herri lurren ustia ketaz gozatu dutenak eta beren lurra bezala bereganatu dituztenak. Baztangoak izaten jarraitzen duten bitartean, eta Nafarroako Gobernuaren herri lurren txostena bukatzen denean, esanen zaie Baztango herri lurak erregistratu dituztela berenak balira bezala»

zain gaude. Gureak bezala ditugu erregistroan, beti Baztango herri lurak izan direlako. Badira baserri batzuk herri lur hori ustiatu dutenak eta ondotik berentzat hartu nahi izan dituztenak. Nafarroako Gobernuaren herri lurren txostena bukatzen denean esanen zaie Baztango herri lurak erregistratu dituztela berenak balira bezala. Momentuan lur bereganatzea gertatuko balitz, Zugarramurdiko Udalak ez lizkieke herri lur horiek eskatuko. Orduan lur pribatuak izatera pasatuko lirake inork ez dituelako eskatu. Lur horien inguruan sortu den iskanbilari aurkitzen diogun argudio bakarra hori da. Dena dela, herri lurrek ez dute preskribatzen, eta uste dugu Baztango Balleari eraso egin zaiola. Gainera, badago 1984ko Espainiako Auzitegi Goreneko epai bat esaten duena lur horiek Baztangoak direla.

■ **Herri lur handia da Zugarramurdik eskatutakoa?**

Baztango luraren %84 herri lurra dela aintzat hartuz, 15 kilometro koadro da gutxi gorabehera Zugarramurdik bereganatu nahi duena.

■ **Baserriotan bizi direnek berretzea eskatu dute argudiatuz bizitza Zugarramurdin egiten dutela, eta zerbitzu asko ere han dituztela.**

1960tik 1998ko azken erroldara arte biztanleriaren erdia baino gehiago galtzen joan da Zugarramurdi. Nafarroan egun gauzak igarotzen ari diren moduan, gu jartzen gaituzte funtzionamendu administratiboa-

Elizondoko albarria izandakoaren semea, Patxi Oiartzabal Elizondo eta Iruñea artean bizi da. Bideko Ama Birjinaren ospitaleko medikua da, Iruñean, baina Belateko tunela maiz iragaiten du Elizondora joateko; dela udaletxeko arazoek hala eskatzen dutelako, dela herriko lagunekin egoteko. EAKo militantea, mendialdeko jende askok bezala uso ehiza du afizio sutsuena, eta urrian harrapaezina da. Berak dioten moduan, «dena itxirik dago», eta ehizatu besterik ez du egiten sasoi horretan.

Baztango Ballea 15 herri osatzen dute: Almandoz, Amaiur, Aniz, Arizkun, Arraioz, Azpilkueta, Berroeta, Elizondo, Elbete, Erratzu, Gartzain, Irurita, Lekaroz, Oronoz eta Ziga. 374 kilometro koadroko eremua duela, Nafarroako udalerri zabalena da. Azken erroldaren arabera, 7.741 biztanle ditu.

Zugarramurdiren eskaera dela eta, Baztango Balleko Udala ez ezik, nafar bat baino gehiago harritu da, orain arte Zugarramurdik muga Iparraldearekin egiten duela uste zutelako askok. Argitalpen askotan hori bera esaten bada ere, Zugarramurdik ez du muga egiten Iparraldearekin, Baztanekin eta Urdazubiren zati txiki batekin baizik. Beraz, Zugarramurdi Baztango lurrek inguratua dago batik bat.

ren eredu gisa. Bestalde, saiatzen ari dira udalerriak batzen, zerbitzuak hobekien direlako. Egun Osasun Zentroa, Oinarriko Giza Zerbitzua, ikastetxeak Baztanek ematen dizkio Zugarramurdiri. 39 urtetan biztanleria hainbeste jaitsi bada, nola arduratuko da datorkionaz?, galdetzen dut nik. Udaltxe batek nahi duenean ematen du zati bat, baina ez du baimentzen beste batek hori egitea.

■ **Zugarramurdik bereari eusten badio, zer egingen duzue?**

Anexioa eskatuko dugu eta Zugarramurdi sar dadila Baztanen. Ez dugu utziko inork deus kentzen. Horrela hasiko bagina, Gipuzkoak Bortzirriak eska litzake, zerbitzu gehienak Irunen ematen zaizkielako.

■ **Hurrengo pausoa zein da?**

Hasiara batean Zugarramurdiko Udalaren zatia zela zioten eta irabazi genuen. Orain alegazioak bidali ditugu, informazio publikora aterako dira, eta Espainiako Estatu Kontseiluak informatu beharko du. Gurea dena defendatzeagatik dirua gatatzen ari da Udala, eta Gobernuari edo Zugarramurdiko Udalarri kontuak eskatuko dizkiegu. Baztanek ez du onartuko lur zatirik kentzea. 374 kilometro koadro ditu Balleak eta 15 edo kendu nahi zaizkio. Une honetan Zugarramurdiko Udalak 5,3 kilometro koadro ditu, eta gure herri lurren bizkar laukoiztu egingen luke berea. Arrazoikoena, zerbait arrazoiko baldin badago aferan, 5 kilometro horiek Baztanen sartzea litzateke.

→ Irene Arrizurieta



## Nafar Kronika

Pello Goñi

### Aurrerapenik ez

**G**ezurra badirudi ere, informazio-autobideetako giza-kiok arras gutxi aurreratu dugu. Bai, noski, sofistikazio izugarria erdietsi dugu; Natura ia menperatua daukagu: negun ez dugu hotzik izaten ez eta udan berorik ere; zaharrago hiltzen gara -zorion pittin batez-; eta asmatu dugun ekonomia-sistema honek (alegia, batzuen ongizatearenak) noizean behin atsedena hartzeko parada ematen digu. Hori guztia oso ongi legoke, urteetan zehar geure barreneko izaera menperatzen ikasi izan bagenu. Zoritxarrez, Abel hiltzeko asmoz Caine masailuzurra jaso zuenetik arrunt gutxi egin dugu aitzina. Genesiaz geroztik hagitz gutxi aldatu dira buruezurrez ereindako landak. Berdin ere segitzen du gorpu txikituen ondoan isuritako odolak: emeki-emeki idortzen. Historian zehar gerla goretsi izan dugu, gerla eta bere tresneria hiltzaila. Haren izenean jaingoak asmatu, literatura idatzi, koadroak marraztu, eskulturak egin eta museoak eraiki izan ditugu, besteak beste. Zientzialaririk onenak, gizonik indartsu eta trebeena eta artistarik finenak Marte-ren morroi jarri ohi ditugu. Gizonak esan dut, bai; izan ere, salbuespenak salbuespen, gerla gizonaren kontua izan baita beti. Beranduegi da aldatzeko. Horregatik nik, Oteizak bezalaxe, gizonenganako itxaropena galdua dut aspaldian, eta egunen batean emakumeek hau guztia konpon dezatela besterik ez dut espero. Andreengan egon behar duelakoz, doike, guk eraikitzen jakin ez dugun etorkizunak. Bitartean, sableen hotsak menperatuko gaitu. Ez bakarrik Jugoslavian.

## gure aukerak

### KONTZERTUAK

- **Alzoain:** La venganza de la abuela-ren kontzertua izanen da bihar 22:30etan Artsaian.
- **Iruñea:** Joan Manuel Serrat kantariak kontzertua eskainiko du bihar, Anaitsuna kiroldegian.
- **Lizarrak:** Gaztetxean Lif taldeak joko du bihar.
- **Lodosa:** Txapalangarra penan Bol, Dr. Floating eta Arriskua taldeen kontzertua izanen da bihar.
- **Iruñea:** Chopin nusikagilearen urteurrena dela eta, Enrique Perez de Guzman piano joleak kontzertua eskainiko du datorren ostegunean, Gaiarre antzokian, 20:00etan.

### ZINEMA

- **Iruñea:** Golem zinematikian *Ahmed, Alhambra*ko printzea filma eskainiko da hurrentzako, gaur, 11:30etan. Aurretik, 10:30etan, Nafarroako Antzerki Eskolako kideen antzerki saioa izanen da zinematikaren atarian. Sarrerak 200 pezeta balio du.
- **Tafalla:** Datorren asteartean eta ostegunean *Los miserables* Bille August zinemagilearen pelikula pantailaratuko da 20:00etan eta 22:30etan. Bihar, berriz, 18:00etan, *Un ratoncito duro de roer* eskainiko da hurrendako, eta etzi 17:30etan. Emanaldi guztiak Cinema Españolen izanen dira.

### ERAKUSKETAK

- **Tafalla:** Hilaren 28a arte F. Javier Etaio *Tasio*-ren marrazki erakusketa ikus daiteke.
- **Zangoza:** *Imagenes de una peregrinación; ruta Jacobea* erakusketa ikus daiteke maiztaren 2a arte. Bertan, Donejakue bidean hartutako hainbat irudi bista daitezke.
- **Lizarrak:** Juan Vida eta Alejan-

dro Gornemanen lanak ikus daitezke etzi arte Gustavo de Maeztu museoan.

### BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Kulki taldeak jokoak antolatu ditu herriko hurrentzako, gaur eskolan 18:00etan.
- **Bertiz:** Bertizko Turismo Par-


tzuergoak *Bidasoako Jaialdiak 99* iragarriko dituen kartel lehiaketa deitu du. Gaia norberak aukeratutakoa izanen da, eta kartelean, derri gorrez, ondoko testuak agertu beharko du: *Festivales del Bidaso 99 Bidasoako Jaialdiak. Agosto-Septiembre / Abuztua-Iraia. Consorcio Turístico de Bertizko Partzuergo*

Turistikoa. Informazio gehiago: 948-59-23-23 telefonoan.

► **Iruñea:** Alde Zaharra auzo elkarrekin ikastaroak antolatu ditu. Dantzak, eskulanak, yoga, masajea, argazkigintza, txalaparta, margoa, marrazketa... ikasi nahi duenak gaur du izen emateko azken eguna. Informazioa 948-212526 telefonoan.

## Arestiren liburutegia

Castelao nos



—O que sinto en é que algún que maltratou a miña nai morra denantes de que en chegue a home.

Gauza bat damu dut nik, ene amari tratu gaiztoa ematen dion bat, neu gizondu baino lehen hil dadila